

Mugikortasun, Garraio eta Azpiegituretako zinegotzi ordezkariak emandako ebazpen baten bidez, Okendo plazako bertakoentzako aparkalekuko plazen zozketan parte hartzeko onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendak onartu ziren. Gero, hamabost eguneko epea eman zen, apirilaren 25a arte, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko.

Alegazioak aurkezteko epea amaituta, ebatzi egin dira, eta zuzendu beharrekoa zuzendu. Ondorioz, behin betiko zerrendak onartu dira.

Zerrendak maiatzaren 11tik aurrera ikusi ahal izango dira Udaletxeko Iragarki Taulan (Ijentea kalea, z.g.) edo Mugikortasun Zuzendaritzaren bulegoetan (Urdaneta kalea 13 – 3.a), astelehenetik ostiralera (goizeko bederatzietatik arratsaldeko ordu biak arte). Donostiako Udalaren web orrian ere egongo dira ikusgai: www.donostia.org

Plazak esleitzeko zozketa publikoa 2007ko ekainaren 18an izango da, arratsaldeko ordu batean, Udaletxeko Udalbatza Aretoan.

Horiek horrela, Mugikortasun, Garraio eta Azpiegituretako zinegotzi ordezkariak, 2005eko uztailaren 15ean Donostiako Gobernu Batzarrak emandako eskumenak erabilia, honakoa ebatzi du:

EBAZPENA

- 1.- Onartzea Okendo aparkalekuko plazen zozketarako onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda, ebazpen honi erantsia.
- 2.- Jakinaraztea plazak esleitzeko zozketa publikoa 2007ko ekainaren 18an izango dela, arratsaldeko ordu batean, Udaletxeko Udalbatza Aretoan.
- 3.- Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du. Konforme ez dagoenak berraztertzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango dio Mugikortasun, Garraio eta Azpiegituretako zinegotzi ordezkariari, zerrendak goian esandako tokietan azaldu eta biharamunetik hilabete iragan aurretik. Bestela, aukera dago, baita ere, administrazioarekiko auzi errekurtoa aurkezteko zuzenean, egun horretatik bertatik bi hilabete baino lehen, 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko Auzi Eskumena arautzekoak, 8.1 eta 46.1 artikuluetan ezarritakoarekin bat.

Donostia, 2007ko maiatzaren 10a

IZPTA.: ERNESTO GASCO
MUGIKORTASUN, GARRAIO ETA AZPIEGITURETAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA